

Loiola

Leire Balda (943-455677)

duela hilabete pasatxo, Txomineneko etxe hau lurrera erori zen. Etxeak hainbat urtez hutsik egon da, eta azken urteetan gero eta egoera okerragoan zegoen. Auzoan ezaguna den okupen etxe ondoko parke ertzeko eraikina dugu honako hau. Loiolatik Txomineneko anbulategirainoko bidea egiten

Etxeak behera erori izanak ez du inor harritu



Etxe zaharren artean, horma berria dugu orain.

duten auzotarrak, ibilaldi laburragoa egiteko, etxearen partetik igaro ohi dira. Auzotarrek, jakin bazekiten, eraikinaren etorkizuna ez zela lu-

zea izango. Izan ere, aldamentetik igarotzerakoan, bide erdian, askotan harri puskak eta teila zatiak aurki zitezkeen. Argazkian ikus daitekeenez,

etxea zenaren aurrean, udal-etxeke langileek horma bat altxatu berri dute. Auskalo noiz arte geratuko den horrela!

Martutene

Amaia Etxeberria (943 21 09 37)

martuteneko Arantzazu Ama ikastolak, errepidearen bestaldean dagoen autobus geltokia lekuz aldatzea proposatu du. Ikastolako garraio zerbitzuko autobusak, Tranbia Konpainiako ohiko paradan gelditzen dira. Errepidean zehrabidea dagoen arren, ikastolako irakasleei oso arriskutsua iruditzen zaie hau-

Haurrek egunero errepidea zeharkatu behar izaten dute ikastolara joateko



Autobus geltokia tokiz aldatuko balute umeentzat seguruagoa izango litzakeela diote irakasleek.

rrek egunero errepidea zeharkatu behar izatea. Hori guztia dela eta, geltokia Eroski aurrean jartzea eskatu dute. Ikastolako irakasleen aburuz, geltokia tokiz aldatzeko erro-

tonda txiki bat eraiki beharko litzateke. Horrela, eskolako autobusak haurrak eskola perean utzi, errotondari buelta eman eta ohiko norabidera itzuliko lirateke.

Geltokia beste aldera

Zuhaitzik gabe

Joan den astean Hipika Pasealekuko basoaren mozketaren berri eman genizuen. Oraingoan basoa nola geratu den erakutsi nahi dizugu. Triste samar geratu da ingurua.

